
DOHAN ZEURE ETXERAKO

...eta kitto!



ETXE ERREJIONALAK: BERTOKO EGINDA

Eibarren hiru etxe-erregional ditugu: Galiziakoa («casa cultural de Galicia»), Kantabriakoa («Centro Montañes») eta Burgosekoa («Centro Burgales»). Etxe hauek behin eta berriro gogorazten digute gure herrira zenbat eta zenbat emigrante etorri ziren orain dela hamarkada batzuk, eta euren nortasuna mantetzeko nahia. Hiru etxe hauek «Gipuzkoako Etxe Erregionalen Federazioan» integraturik daude. Gipuzkoa mailan, Galiziako etxeak Eibarren eta Donostian daude; Burgosekoak baita Eibarren eta Donostian eta «Centro montañés» Eibarren besterik ez dago.

GALIZOAKO ETXEA 1984eko Maiatzaren 20an sortu zen, iniziatiba lagun talde batena izan zelarik. Gero, pixkanaka bazkideen kopurua handituz joan zen, eta gaur egun 122 dira, gazteen kluba kontatu gabe. Jakina denez, etxe hau Orbeako dorreetan kokaturik dago, eta bere ubikazioa dela eta, joan zen urteko uholdea jasan behar izan zuten: 11 miloitan baloratutako galerak izan zituzten.

Inolako dudarik gabe, beraien aktibitate nagusiena urtero ospatzen duten «Dia das letras galegas» da. Honetaz gain, 64 edo 65 partaide dituen dantza talde bat, orkesta propio bat, abotsen talde bat, eta gazteentzako klub bat daukate, hemen 160 neska-mutilek parte hartzen dutelarik. Beraz, gazteen kluba kontutan hartuz gero, 300 bat bazkide lirateke.

Etxe honetako bazkide izateko baldintza bakarra, beraien estutoetan esaten denez, kulturazale izatea litzateke, eta nahiz eta gehienak gailegoak izan, ateak mundu guztietarentzako irekita dituzte.

Etxe honetako presidentea den **Antonio Alonsok** adierazi zigunez « gure herria eta gure gauzak maitatzeak ez du esan nahi hemen integraturik ez gaudenik. Adina eta krisialdia dela eta, Galiziatik ez da jenderik etortzen. Hau dela eta, ezin dezakegu etxe hau bakarrik gailegoetan oinarritu: geure lagun eta semeak hemegoak dira, eta gu desagertzerakoan etxe hau hemengo jendeak eraman beharko du, jende hau hemengo edo hango kulturarekin familiarizaturik egon beharko delarik».

Gaur egun Jardiñeta kalean kokaturik dagoen «CENTRO MONTAÑES»-a 1957. urtean sortu zen, nolabait 50. hamarkadan etorri ziren hainbat eta hainbat kantabro batzeko. Lehenengo urte hauetan 580 bazkideen egoitza Bidebarrieta kalean kokaturik zegoen. Gaur egun 173 bazkide gelditzen dira, batzuk hil eta beste batzuk beraien herrietara itzuli bait dira.

Jose Manuel Castilla presidenteak esan digunez, «oso gustora sentitzen gara Euskal Herrian; asko hemengo emakumeekin ezkondu gara. Zentru honetan badaude kantabroak ez direnak, nahiz eta hasiera-hasieran bazkide izateko baldintza ezinbestekoa zen kantabroa izatea. Honetaz aparte, urte honetatik aurrera emakumeak ere bazkide izan daitezke».

Zentru honetako aktibitate deportiboen artean, bolajokoa azpimarratu daiteke, Ipuruan denok ezagutzen dugun bolera dutelarik. Zentru honetakoek liga probintzialean hartzen dute parte, eta azken liga honetan garaile aterako direnez, ohorezko ligarako igoera jokatzeko eskubidea izango dute.

Aktibitate kulturalei dagokionez, Kantabriari buruzko erredakzio sariketa bat prestatu dute umeentzat. Lehiaketa honetako sariak Irailaren 15ean banatuko dira, egun hau Kantabriako patronaren eguna bait da (La virgen Bien Aparecida); egun hau ospatzeko Kantabriako talde folkloriko bat etorriko da.

Hirugarren etxe erregionala, «CENTRO BURGALES» izenekoa, Zezen-biden aurkitzen da, eta nahiz eta 1962.urtetik funtzionatu, ez da betidanik leku berdinean egon. Kantabriako etxearekin gertatzen den bezala, bazkideen kopurua murriztuz joan da pixkanaka arrazoi berdinengatik.

Beste bi etxeetik ezberdinduz, Burgoseko honek elkarte bezala funtzionatzen du orain dela 10 urte gutxi gora-behera: bertara sartzeko giltza beharrezkoa da.

Zentru honetako presidenteak, **Jesus de la Fuentek** esan digunez, «era honetako elkarteen helburua ez da besteengandik isolatzea; hemen aktibitate guztietan parte hartzen dugu: euskal jaian, San Andresetan... Azken finean, elkarbizitzen kultura bat eta bestea aberastu egiten dira».

Elkarte honetako jendea, orohar, adineko jendea da. Gazteak elkarte honetatik urrunduta daude, azken finean hemen jaio direlako eta hangoa (Burgosekoa) ez duetelako ezagutzen, presidenteak esan zigunez.

EIBARko DENDARIEN ELKARTEA
ASOCIACION de COMERCIANTES de EIBAR

Aseguru on bat. Geurea
LAGUN ARO SEGUROS ASEGURUAK
Eibar.
Errebal, 8
Tel.(943) 70 16 00 - 04

PEDRO MARI IRIONDO:

29 urtetan zihar frontoian jueza afiziñoz

Eibarko pelota zaletasunaren gañean berba eitxeko oingo honetan Pedro Marikin izan gara ta berak pixkat bere hasikeria ta pelotia zelan ikusten daben kontau dosku; batez be interesantiena bere 29 urtiak frontoiko juez moduan izango dira. Baita be frontoiko ta pelotarixen munduan ein daben ezagupidia.

«Primeran gaur egunian hogeiren bat pelotari egongo dia, ta horretatik zortzi bizi dia pelotatik ta bestiak ezebez. Retegik esate baterako hogei milla duro irabazten dittuz partiduko».

Hasikeria

«Ba ni hasi nintzan lelengo ba... Club Deportibuan direktiban pelotako komisiñuan, kanpeonatuak organizatzen ta zera ta... gu frontoira juaten giñan ta frontoia duan eukitziarren garbitxu eitxen genduan frontoia. Ta gero ba... juez hasi nintzan: frontoian zelan nebillen, behin ba... jueza falta zan, eta deportibokua zelan nintzan esaesten iaber ipiniko nintzan neu, ta behin ipini nintzan ta 29 urte daroiadaz».

Afiziño haundixa edo zelakua Eibarren?

«Ez, ez... gutxi dao. Nik uste dot gitxiago daola. Gaurko egunian pelotan baiño foballian afiziño haundixaua daolako; ta gero ba... pelotan eitxian karu be urtetzen dau, ze gaur gaztiari frontoian pelotan eitxia ordu betian kostatzen jako berrogetamar duro bakotxari, gitxienez».

Apostuetan be, oiñ ze apostu eutxen da: gehixeao edo gutxiao?

«Gitxiao, hori be... dana gitxiao. Pelotia bajau ein da Eibarren asko, Eibarren ta beste leku batzutan ondiokan gehixao. Oiñ urte batzuk diala, oiñ hamar-hamabost urte, Eibarren botatzen zian eh... ehun bat festibal inguru urtian, gehixao be bota izan dira baiña igaz 48 bota douz».

Ta zuk juez moduan bakarrik besterik ez, ezta?

«Nik bai, nik arbitro moduan eintxen dot. Protestak eta be eukitzen dittut, asko ez baiña bai: hor kolore bi doaz! gauza bat dao ona! bateri kalte eitxen badotsazu, bestiari, bentaja! Eoten dia protestak, eta pelota dudosuak be eoten dia, pelotarixak berak bakarrik dakixaxenak buena edo falta dian; berak bakarrik, eh?. Bakarrik hor be dirua jokuan eta... bronkak egon dira bai... bronkak bai!... zigarro puroik eztau emoten iñork baiña... bronkak bai!.

Korredoriek asko irabazten dabiela entzun dogu, egixa ete da?

«Ez, ez, zu... korredoriak asko aberastu ein dia; baiña askok negar be bai, ze hor eh... frontoian eh... kobrau barik iñork eztau urtetzen baiña pagau barik morduak, pagau bakarik morduak!!


Korredoriak enpresiaren %16-tik %6-ko partea daukie. Baiña askotan heurak be jokatu eitxen dabie asko, hori biziua da baiña, hor eztao toperik».

Hamen pelotari onak egongo dia, ezta?

«Hamen?: hamentxe onenak, onenak hamentxe astelenan. Gaur egunian naparrak dira onenak. Oiñ eh... oiñ kanpeoia geuria da: Tolosa. Pelotaritxetan be kategorixak daoz. Primeran gaur egunian hogeiren bat pelotari egon dia, ta horretatik zortzi bizi dira pelotatik ta bestiak ezebez. Retegik esate baterako hogei milla duro irabazten dittuz partiduko».

Pelotarixak sasoikuak truko gehixeao eukiko dabez, ezta?

«Bai, bai, bai, beti gehixenak: naparrak, frantsesak... danak euskeraz eitxen dabe, ta ondo!!. Gero riojanuak be badaoz, harek be afiziño haundixa. Ostian erdaldunak ez dake pelotan eitteko eh... kapazidaderik!; bueno, bueno, bueno... ondiokan klasiak daoz!!».



Pedro Mari Club Deportiboko pelotako komisiñuan hasi zan, ta oiñ be afizuñuagaittik jarraitzen dau, emoten dabenagaittik ezin leike juez izan-ta.

• «Gaurko egunian pelotan baño foballian afiziño haundixua dao»

• «Len Eibarren 100 festibal inguru botatzen zian urtian, igaz 48»

• «Zigarro puroik eztau emoten iñok baña... bronkak bai»

• «Korredoriak enpresiaren % 16-tik %6ko partia daukie»

Inpartziala izaten zara?

«Inpartziala... alegiña eiñ bai... beti, beti inpartziala. Hori juez guztiak eh... hor eztao tranparik eh? ...nik edozein juezegaitxik ipiñiko neuke besua, edozeñegaitxik. Oiñ eh... batzuetan ba... ankia sartzen dozu, baiña han eh... perfektua izan bihar haizela ta hartzen zaittue ta...

Hainbesterako da komentatzen dan peloten arteko diferentzia?

Terriblia! Siñestu ezindakua izaten da diferentzia. Hor norberan kondiziñuak daoz, norberak indar gehitxuao euki edo gitxiao euki edo... bote handira edo txikixaora edo...

Pelotia zera da... ume txikixan moduan, zaindu eiñ bihar da: egualdixan aldaketiakin egun batetik bestera kanbixau eitxen da; badakazu leku hotz baten konpletamente bote barik geratzen da eta pixkat berotzen danian hobeto eitxen dau botia. Pelotian sekretua haundixa da, haundixa!!».

Zuen juezondako kolegixorik edo badao?

«Bai, «Colegio de Jueces» dao. Nik profesionalak arbitratzen ekin dot. Arbitruak ez daoz asko, afiziñuagaittik daozenak, ze... emoten dabenagaittik ezin leike juan».

GURBIL
Pizzeria Jatetxea
isasi kalea-1
eibar tf-111152

Musika Mh
HARATEGIA
Odolosteak Txorizoak
Bildots eta Txahal okelak
Bidebarrieta,12
Urkizu,18 -Telf 120194

GRABADOS
ESKULAN
Aldatze 4 behea
Tfno (943) 713103
20600 EIBAR

jatetxea
kantabria
Ezteiak, Bataioak, Despedidak
Tfnoa: 12 12 62
ARRATE-EIBAR

SASTRERIA
AZPIRI
ARRAGUETA 25
Tfnoa.: 12 12 97

pintxo bar
San Juan 3-Telf 700899

... eta Kitto ibiltarixa

Turista eta ibiltarixa ez dira bat

Gainean dauzkagu espero genituen eta hain estimatuak diren oporrak. Sasoi berezi hau dela eta eibartarron opor mundua jorratu nahi dugu «...eta kitto ibiltarixa» deitu dugun honen bitartez. Helburu nagusia eibartarron oporren gainean zabal jardutea dela, hona hemen irakurle eskaintzen dizugun minuta: lehen orrialde honetan motibo edo arrazoi desberdinengatik munduan zehar ibilitako hiru eibartar dira protagonista. Barruan, gehigarri hau kaleratzeko babesa eman duten (eskerrik asko) agentzien eritzi interesgarria aurkitu daiteke eibartarron oporretako bidai eta joeraz dihardutelarik.
Azken orrialdean ibiltari baten elkarrizketa interesgarria eta eibartarron ohitura eta joera ugariak adierazten dituen inkesta. Baita ere gazteentzako informazioa.
Entretenigarria gerta dakizula estraineko gehigarri hau, eibartarron artean egindako «Ibiltarixa». On egin deizula

PEDRO MARIA AGIRREGOMEZKORTA




«PETRUS»

«Guk turismoa alpinismoarekin konpaginatzen genuen, Alpeetara, Korzega, Noruega, Groenlandiara... joaten ginen. Halere, gure lehen helburua beti mendia zen, turismoa osagarri bat izanik. Azkenengo irteeran Kilimandjaron egon ginen. Joaten ginen mendietan generalki jende asko aurkitzen genuen, leku guztietako jendea gainera. Esate baterako Klimandjarok 6.000 metro ditu, eta 1.000 metro bakoitzeko gordeleku bat dago, han jende askorekin elkarbizitzen duzula.

Argi dago dena kate bat dela: lehendabizi, inguruko mendietara joaten hasten zara; hurrengo helmuga Pirineoak eta Picos de Europa da, gero mendi handiagoetara joaten hasteko. Gure bidaietan kanping-dendak eramaten genituen. Hoteletan ez gara ia inoiz izan, Afrikan egon ginenean ezik.

Gu denbora justu-justuarekin ibiltzen ginen. Picos de Europara joaten ginenean bakarrik astebeteko oporrak genituen, eta gainera ez genuen kotxerik. Orduan gaur egun dauden erreztasunak izan bagenitu...».



MARIASUN IRIALAGOITIA

«Ni bost kontinenteetatik ibili naiz, batzutan nire lanagatik eta bestetan nire kontura. Askotan, lana dela eta nonbaitera joaten nintzenean, inpresinua besterik ez dut ateratzen, eta gero nire kabuz gauzak sakonago ikusten saiatzen naiz. Esate baterako, Japoneko estetika berezia asko gustatu zitzaidan, eta berriz joateko asmoa dut.

Nire ustez garrantzitsuena ez da distantzia, hemen ezagutzen ez ditugun gauza interesgarri asko bait daude. Uda biajatzeko garai txarrena dela uste dut, zeren alde batetik kolore eta usainek ez daukate beste aldi batzutan bezelako intentsitaterik, eta bestalde, udaran herriek ez daukate bizitza berbera.

Askok exotismo bila doaz, zirko batetara bezala, hango jendearen mentalitatearekin bat egin gabe. Begiak, burua eta bihotza zabalik eraman behar dituzu bertako jendea errespetatuz. Egia da hilabete batean ezina dela guztiz konektatzea, baina biajatzeko orduan postura ezberdinak daude: batzuk emozio gogorren bila doaz, baina nire ustez emozioak ez dira probokatu behar. Jendearengana errespetuz eta naturalitatez hurbiltzen bazara, errespetuz tratatuko zaituzte. Gainera, ezin ditugu gauzak gure baloreen arabera neurtu, gureak bazter batean utzi behar ditugu.

Nik ez daukat jendearen fotografiarik, nahiz eta hauek politenak izan. Azken finean nik biajeroa eta turista ezberdintzen ditut, eta turista tipiko horretatik aldentzen ahalegintzen naiz».

FERNANDO RETOLAZA

«Orain dela 18 urte hasi nintzen biajatzen inguru honetatik zehar (mendiak, Galizia, Baleareak, Balentzia...); auto-stopean ibiltzen ginen, ez genuelako bestelako mediorik. Distantzia luzeak egiteko kamioietan ibiltzen ginen: transporte agentzietan kamioilariekin gelditzen ginen, eta hauek eramaten gintuzten gure laguntzaren trukez.

Lanean hasi ahala, hasi nintzen kanpora irtetzen: Inglaterra, Holanda... Geroago, kotxea eta nobiarekin Europa osoan ibili ginen.


Diferentzia handia dago leku batetik bestera, kulturak guztiz ezberdinak dira. Jendeari dagokionez, Europak ez digu ezer esaten: askoz ere aberatsagoa da beste herri batzuetara joatea. Esate baterako, oso hurbil dago Marrokoa, hango kultura eta ohiturak guztiz ezberdinak direlarik. Beti ahalegintzen gara turismoa heltzen ez den lekuetara joaten, nahiz eta hainbeste komodidade ez aurkitu.

Bestalde, bisitatzen dituzun lekuetara adaptatu behar zara; ezin zara hemengo ideia eta baloreekin joan. Askotan gure prisak eta janariak ahaztu egin behar ditugu erabat. Asian badakizu hilabete osoan arroza eta tea hartu beharko duzula, eta ez duzula txuletarik edo-ta kafe konpleturik aurkituko.

Oso aberatsa da biajatzea, kultura aldetik asko ikasten dezu, eta askotan Txinara joan-etortzea Zarautzen apartamentu bat alokatzea baino merkeagoa ateratzen da. Argi dago biajatzeko baldintza ezinbestekoa gogoa izatea dela!



EIBARTARRON OPORRAK: HAUEK BAI OPORRAK!



Eibartarrok oporrak pasatzeko dauzkagun modu, joera eta zaletasunetan badaude konstante eta adostasun dexente.
Jende finkatuak, seme-alabadunak, gutxiago mugitzen dira, normalki oporrak leku berean, mugitu gabe pasatzen dute. Bitartean, loturaturik ez dutenek dira benetako ibiltariak. Familiak mediterraneo aldera joan eta apartamentuak dituzte gustoko. Gazteek eta lotura gabeak, ostera, gero eta gehiago bidaiatzen dute. Iaz Cuba eta Turkiako joera nagusitu bazen, aurten Cuba eta Republica Dominicana daude modan, bidaia geheienak 15 egunekoak direlarik. Diru-gastuen arloan ibiltariak garraio edo transportean gastatzen dute gehien. Famili edo jende finkatuak apartamendu edo alojamendutan.
Dana den, Udako opor nagusia hauetatik aparte handitzen dihardu Aste Santu, Gabonetan eta Zubietan ere herritik irtetzeko joerak.
Gure herriko agentziak ditoenez bezeroak ez gara kexatzen eurek eskaintzen dituzten zerbitzuekin eta gainera nahiko salauak gara.



EROSKI

— Zure agentziaren ikuspuntutik zelan ikusten dituzu eibartarren oporrak:

(1)— Oporrak pasatzeko moduak. Zein da joera nagusia?: Gehienen lehenengo apartamentua eskatzen da normalki oporretan, familia osoa joaten da. Orduan familiandako onena eta gehien erabilia apartamentua da. Askotan pareja eta ume txikiak egoten badira hobe izaten da hote la eta hor guk orientatu egiten dugu pixkat. Hala ere gehien eta nazional mailan apartamentua izaten da eskatuena batez ere uztaila eta abuztuan.

Gero kanpora joaten direnak edo estranjerora joaten direnak ere badaude.

(2) —Eibartarrek asko bidaiatzen dute ala gutxi? Zer nolako bidaiak?: Nik uste dut nire agentziaren ikuspuntutik eibartarrek gero eta gehiago bidaiatzen dutela. Normalean 15 eguneko bidaiak izaten dira gehienak, eta kanpora joaten direnak ere, estranjerora doazenak ere 12 edo 15 egun egiten dituzte gutxi gora behera, hilabetekorik ez dakit saldu dugun, normalena hamabost egun izaten da.

(3) — Zertan gastatzen dute diru gehiago? Bidaiatzen… hoteletan… jaten eta edaten… erosketak egi ten…: Hori oso zaila da esateko. Dirua daukanak egingo ditu erosketa gehiago. Hotelari dagokionez hotelak ez du gasturik, baina Canariasetara joaten denean jendea galdu egiten da. Gendeak asko galdetzen du irten aurretik zer nolako gastuak izango dituen berak joateko aukeratu duen tokian, hori jende askok galdetzen du eta asko galdetzea nik uste dut seinalea dela diru askorik ez izatearena. Norberaren ahalmen ekonomikoa oso garrantzitsua da hemen.

(4) — Zein da gehien kontsumitzen den eskaintza? Nora?: Gure fuertea batez ere Benidorm da eta gero ba: Canariar irlak, Balearrak… eta estranjeruan batez ere Cuba, ni hemen nagonetik beti Cuba egiten dugu gehien.

(5) — Bezeroak gustora gelditzen al dira? Kejak jasotzekotan, zelakoak izaten dira?: Bidaietako bezerua gauzarik atseginena da zeren beti pozik dago: edo ezkontzeko, edo beste batentzat erregalua egiteko, edo oporrak, edo jubilatuak badira badakite ondo ibiliko direla, orduan oso atsegina izaten da bezeroa. Normalean ez da izaten arazorik. Bilduragarriena abuztua izaten da demanda gehien edo eskaera gehien diren hilabetea delako. Halere, estutuan oso hotel onak dagoz, horretan behintzat Europa mailan gaude.

DONOSTI

— Zure agentziaren ikuspuntutik nola ikusten dittuzu eibartarren oporrak:

(1) — Oporrak pasatzeko moduak. Zein da joera nagusia?: Guk aurten daukaguna batez ere gateentzako litzateke, folleto batzuk ditugu oso merkeak direnak eta jendeak asko eskatzen ditu: izan daitezke 15 egunetako bidaiak, eskurtsio moduan montaturikoak…

Hortaz kanpo saldu ditugu: Egipto, Marroko, Italia, Europa erdialdea…

(2) — Eibartarrek asko bidaiatzen dute? Hala gutxi? Zer nolako bidaiak?: mugimendu oso handia dago, nik uste dut aurtengo abuztuan herria itxiko dela, ez dela iñor geldituko. Apartamentuei dagokienez Mediterraneo ingurua da jendea gehien urbiltzen den tokia, Cubara ere joaten da gendea. Joan zen urtean Turkia asko eskatu zuten.

(3) — Zertan gastatzen dute diru gehiago? Bidaiatzen… hoteletan… jaten eta edaten… erosketak egiten…: hori bakoitzaren arabera litzateke. Hotelera jende gutxi joaten da. Hala ere parajentzat hobe eta erosoago da hotela. Hori igarri egiten da, badago jendea beti apartamentuetara joan izan dena baina azken urteetan garestiak direla aparatamentuak eta hotelera joatea hobeago zela pentsatu duena. Canariasetan guztiek esaten dute diru izugarri gastatzen dela, Canariesatara joatea pekatua da, ezin zara etorri ezer erosi gabe.

(4) — Zein da gehien kontsumitzen den eskaintza? Nora?: Esaten dizut, gehien saldu dena lehen aipatu dizudan folletoa izan da: batez ere jende gaztearentzat da folleto hau, 35 urterartekoek dute folleto honen bidez bidaiatzeko aukera.

(5) — Bezeroak gustora gelditzen al dira? Kejak josotzekotan, zelako kejak izaten dira?: orain arte bezeroak gurekin oso gustora gelditu izan dira, oparitxoak ekarri dizkigute eta horrelako gauzak. Izan dugun keja bakarra Aste Santuan elurretarako alkilatu genituen apartamendu batzuena izan da, baina hortaz kanpo ez dugu kejarik izan; joan zen urtean gurekin bidaiatu zuen jendea aurten ere gurekin bidaiatu du. Gure agentzia hau nahiko berria da, urte bete egin dugu ekainaren 6-an; oraingoz ongi doa gauza.

GEDESA

Gedesa agentzi inmobiliaria denez beste ikuspuntu batetik enfokatu dugu bere erantzuna. Bertako zuzendariak dionez: «orain dela gutxi Gedesak Untzagako dorrean egoitza berri bat zabaldu du, zeina aparatamentuak, bizitzak eta beste batzuk saltzen bideratua dagoen; batez ere salmente horiek mediterranear kostaldean izaten dira, nahiz eta gure kostaldean ere ari diren geratzen».

Egoitza honen helburuan promozio ezberdinetatik datozen eskaeran bideratzea litzateke: beren egoera eta kalitatea aztertuz.

Kontutan izanik bizitza-kalitatea gero eta hobeago baten bila gabiltzan eta jendeak kriterio ezberdinak dituela, gure eskeintzen oporrrak igarotzeko beste alternatiba baten kokatu behar dira. Eta era beran bakoitzak bere kapazitateen araberako inbertsio bat egin ahal izatea suposatzen du. Prezioak oso ezberdinak dira tamaina, kokaturiko puntua eta beste gauza batzuen araberakoak.

Beraz, eta laburtuaz, berriak garenez opor kontu hauetan eibartarren ohituren gainean ezin dugu gauza handiegirik esan, momentuz. Gure helburu nagusia bizitza-kalitatean oinarrituz oporretarako alternatiba berriak eta inbertsio-bideak eskaintzea da.

ECUADOR

— Zure agentziaren ikuspuntutik nola ikusten dituzu eibartarren oporrak:

(1) — Oporrak pasatzeko moduak. Zein da joera nagusia?: Hor bereizi beharko litzateke jende mota ezberdinak, hau da, bakoitzaren ahalmen ekonomikoak kontutan hartu beharko lirateke. Hontaz kanpo ez legoke jendea joaten den toki konkretu bat, halere familien artean dagoen tendentzia Mediterraneo inguruan edo Levante aldean apartamentutan udara pasatzera joatearena da; gero, bikote mailan beste bidaia batzuk saltzen dira, bidaia bakoitza jende ezberdinari egokitzen zaio.

(2) — Eibartarrek asko bidaiatzen dute? Hala gutxi? Zer nolako bidaiak?: Bai, asko gainera, asko, eta nik uste dut gero ta gehiago. Gero ta gehiago esaten dut zeren egunean-egunean bidaiatzeko aukera hobeak daude. Tendentzia dago zubietan eta horrelakotan ere bidaiatzeko, asko saltzen dira: Paris, Salou, Portugal…

(3) — Zertan gastatzen dute diru gehiago? Bidaiatzen… hoteletan… jaten eta edaten… erosketak egiten…: Beno… nik ez dizut bezeroak ikusten bere helburura edo aukeratutako herrira heltzen direnean. Nik uste dut oraindik eta gaur egun ere garestiena transportea dela eta alojamentuaren kostua bigarren maila batetan legoke. Gero ezberdintasunaren kostua bigarren maila batetan legoke. Gero ezberdintasuna dago baita ere aukeratzen den lekuarekin, leku batzuk beti garestiagoak eta beste batzuk merkeago dira.

(4) — Zein da gehien kontsumitzen den eskaintza? Nora?: Gaur egun esan daiteke ez dagoela jendea joaten den toki zehatzik, hemen denetarik saltzen dugu. Modan dago Republica Dominicana momentuan, han bizitza oso merkea da; Cuba ere modan dago: herri ezberdina da, bere egoera politikoa ezin daiteke gure inguruan egunero ikusi, esan alde hortatik nahiko bitxia dela.

(5) — Bezeroak gustora gelditzen al dira? Kejak jasotzekotan, zelako kejak izaten dira?: Generalean keja maila ia ez da existitzen, keja bezela ulertu daitezke: zerbitzu txar bat… edo toki bat ez gustatzea… pertsona bakoitzak bere gauza atsegin eta ez atseginen zerrenda dauka: adibidez bezero batek esan dit hotel bat oso ona dela eta beste batek, ostera, hotel berdinaz esan dit ez zaiola atsegina gertatu, suerta daiteke hegazkinetan atzerapenak egotea, baina hori edozeini gerta dakioke.

IBEROTURS

— Zure agentziaren ikuspuntutik nola ikusten dittuzu eibartarren oporrak:

(1) — Oporrak pasatzeko moduak. Zein da joera nagusia?: Ba nik uste joera nagusia batez ere uda garaian dala ba… hondartzara joan, eguraldi ona topatu… batez ere hori. Mediterraneo ingurua da gehien saltzen dena, eta batez ere eguraldia da determinante nagusia horretan.

(2) — Eibartarrek asko bidaiatzen dute? Halą gutxi? Żer nolako bidaiak?: Nik uste normalki baietz, nahiko bidaiatzen dutela. Oporretan… nik uste Aste Santua dala nahiko garrantzitsua eta gero udara, abuztua batez ere. Hori kalean ikusi daiteke. Bidaiak Mediterraneo ingurura saltzen dira asko: aparatamentuak familientzako eta bestela hotelak. Kanpora ere joaten da jendea baina batez ere gazteagoa edo haurrik ez daukan jendea. Europa nahiko saltzen da, garrantzitsuenak nik uste: Italia, Grezia, Turkia… lirateke. Ameriketan garrantzitsuenak, batez ere Erdi Amerika: Cuba, Republica Dominicana eta gero nik uste Mexikora ere nahiko jende joango dela aurten bidaia nahiko berezi bat eta merke antolatu bait da. Hego Amerika ere nahiko saltzen da: Gero beste puntu garrantzitsu bi: Tunez eta Marruecos lirateke.

Jende gehiena 15 egunerako joaten da.

(3) — Zertan gastatzen dute diru gehiago? Bidaiatzen… hoteletan… jaten eta edaten… erosketak egiten…: Nik uste destinoaren araberakoak izango direla gastuak: Hego Ameriketan bidaia ordaindu onodren gauzak nahiko merke daude, baina Ipar Ameriketan ordea bidaia eta gainera gaineratiko gastuak ere oso gareseti lirateke.

(4) — Zein da gehien konſsumitzen den eskaintza? Nora? Globalki apartamentuak jarriko nituzke. Puntu zehatzik ezingo nuke esan. Herrialdeak hartuz gero Cuba izan daiteke; baina ez dago toki fijorik salmentetan, hori produktua globalki hartuta esaten dana da.

(5) — Bezeroak gustora galditzen al dira? Kejak jasotzekotan, zelako kejak izaten dira?: Normalki ez da arazorik izaten. Izaten badira abuztuan izaten dira jende gehiago mugitzen bait da. Gero zuk aukeratzen duzun herria ere kontutan izan behar da, herri batzuk beste batzuk baino instalazio hotelero hobeak dituzte, adibidez: Cuban denok dakigu hotelak ez direla oso onak.

1 Oporrak pasatzeko moduak. Zein da joera nagusia?

2 Eibartarrek asko bidaiatzen dute ala gutxi? Zer-nolako bidaiak?

3 Zertan gastatzen dute diru gehiago? Bidaiatzen… hoteletan… jaten eta edaten… erosketak egiten…

4 Zein da gehien kontsumitzen den eskaintza? Nora?

5 Bezeroak gustora gelditzen al dira? Kejak jasiotzekotan, zelakoak izatean dira



CLUB DE VIAJES EROSKI BIDAIAK
G.A.T. nº 618
— Bittor Sarasketa. Tel: 120012
— Ipurua. Tel: 116877
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

ESKEINTZA PAREGABEA GAZTEDIARENTZAT
Viajes Donosti SL
GAT 1486
Errebal, 15 - 1º
Tel. (943) 11 27 86
11 31 58
Fax. 11 31 58
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GEDESA, S.A.
ASEGURU-BIDERAKETAK
ETXEGINTZA-PROMOZIOAK
Fermin Calbetón kalea, 4
Tel: 111818-702765
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

VIAJES ECUADOR SA
NAZIOARTEKO BIDAIAK (G.A.T.-68)
Untzaga Plaza, 11 - Tel 70 11 65 - Telex 38671
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

IBEROTOURS (SA) viajes
Toribio Etxebarria, 23
Tel: 711480-713451
Telex 38652
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Ibiltarixaren Gorabeherak

— Edurne Narbaiza, nondik zehar ibili zara? Eta zelan?

«Leku askotan ibili naiz, generalian Abuztuan 4 edo 5 astebetez. Lehenengo Europan zehar ibiltzen hasi ginen; komunista herriak ezik, denak bisitatu genituen. Gero Israel, Mexiko, Cuba, Brasil...

Ni neure lagunekin irten naiz gehienetan, hiru edo lau neska joaten ginen geure kontura, bidai organizaturik gabe. Gure asmoa ibiltzea eta ibiltzea zen. Askotan alberge internazionaletan pasatzen genituen gauak, haietan zegoen giroa oso ona bait zen eta mundu guztiko jendearekin topo egiten genuen. Europan zehar kotxez ibili gara generalian. Gero, segun zein lekutan kotxe bat alokatzen genuen. Tunezen, aldiz, taxi bat hartzea oso merkea ateratzen zen.

Nik nahiago dut hortik zehar ibiltzea, mugitzen, leku konkretu batean gelditzea, baino. Dena den, guk askotan gauza larregi ikusi dugu, eta azkenean ez dakizu zer ikusi duzun ere ez».



— Zure bidaietan beti aurkitu duzu espero zenuena?

«Begira, nik beti izan nuen Mexikora joateko ilusioa, uste nuen guztia pozik bizi zela. Gero, hara joatean ohartu nintzen bertako miseriaz, nahiz eta gauza batzuk ikusgarriak izan. Dena den, 7 edo 8 urte pasa direnez, eta beste leku askotan egon naizenez, berriz pentsatzen dut ez zela hain txarra. Asko biajatu ondoren ez zara inpresionatzen. Beharbada, heltzen zaren lehenengo momentuan bai, baino gero berehala ohitzen zara».

— Zer diozu munduan dagoen miseriaz?


«Miseria leku askotan dago (Brasil, Mexiko, India...), baino miseria ez da berdina leku batetan edo bestetan. Hau oso argi ikusten da Indian: Indian dagoen erlijiotasunak miseria ezberdina egiten du. Brasilen ere, miseria izugarria da, baina bertakoek ez daukate Indiako jendeak duen kalma, fede hori. Bai, India guztiz ezberdina da.

— Nolako ezberdintasunak daude herrialde ezberdinetako jendearen artean?

«Jendea oso leku pobreetan askoz ere sinpatiko eta atsegingarriagoa da, kuriosidade haundia dauka. Europan, aldiz , oso hotzak dira, nahiz eta edukatuak izan. Alemaniako jendea gu bezalakoa da: lehenengo erreserbatua, baino gero jende ona. Diferentzia handiagoa dago euskaldun eta espainiar baten artean, euskaldun eta alemaniar baten artian baino. Inglesak oso edukatuak diran baino ez alemaniarrak bezain benetazkoak.

Israel asko gustatu zitzaidan niri, baina hango lekuak baino gehiago, bertako jendearen bizimodua. Ikaragarria da: mundu guztiko jendea topa dezakezu han. Israelen dagoen gauza politena, dudarik gabe, bertako jendea ezagutzea da».

NON PASATUKO DITUZU OPORRAK? ZELAN? ZERGATIK HORRELA?




NARBAIZA BERTSOLARIA

Naparruara buelta bat emango dugu, kanpinean egun batzutan, toki lasaia delako.



AURORA EIBARKO ALKATESA

Ondiokan ez dakit, seguruena izango da Mutrikun, ez dakit gizona ta ni joango garen norabaitera. Mutrikura beti juan izan gara. Trankil egotia gustatzen jaku eta hor trankil egoten gara.



GARMENDIA, EIBAR TALDEKO FUTBOLARIA

Aurten pixka bat ateratzeko gogoa daukat eta Costa Brava aldera joango naiz nere alaba eta emaztearekin. Orain arte oso gutxitan atera naiz hemendik, alaba ere hiru urte egitera doa eta gogoa daukau nobedade pixkat izateko.



JULIA VALENCIAGA, KOMERTZIANTEA

Nik... seguru-seguru oporrak Mutrikun. Bai ze urte askotan Mutrikura juateŋ garaz. Hasi giñan oin dala urte asko, ta zelan da herri polita ta umiendako trankil ibiltzekua ba... hara joan giñan eta oso gustora goaz.



MIKEL ELKORO, IKASTOLAKO IRAKASLEA

Seguraski mendira joango gara, neri gustatzen zait, nere afizio handiena mendia denez, ba hara joaten gara. Igual Boliviara edo bestela Korsikara, baina ez dakit.




MARISOL ARRILLAGA, KONTSERBATORIOKO IRAKASLEA

Hemen Eibarren, inguruko jaietan: Itziar, Deba, Ondarru aldera. Koadrila osoa hemengoa gara, orduan ondo, jai asko daude hemen eta ez daukat kanpora joan behar, bertan ere ondo pasa daiteke.




IGONE, TABERNARIA

Ba ez dakit, ondiokan ez dogu pentsatu, Costa Brava edo hor Mediterraneo ingurura, joango gara baina ez gaude zigur. Modu hau aukeratu dogu: apartamentua; beste urtetan ere joan izan gara eta oso ondo pasatu.




JUBILATUA

Baita Berrizera bazkaritxara, bestietan Debara eta halaxe.



MIGEL EZEIZABARRENA. SAN PIOKO APAIZA.

Nafarroako Ituren beti bezala familiarekin, arrantzan liburuak irakurtzen, mendiak egiten pelotan eta perritxokotan. Iturenen etxe bat dugulako eta umetatik han pasa ditugulako, oso herri lasai eta paketsua da eta.



BORXA ARRILLAGA, «SU TA GAR» TALDEKO BATERI JOLEA

Oporrak Mutrikun pasako ditut egunik gehienak. Oso leku lasaia da niretzako, ezagutzen dudan jendea oso jatorra izanik. Batez ere hondartzan egoten naiz, baina aurten ikasten eta... gure kontzertuetan???, ez zaitezte falta!!

UDALETXEKO INFORMAZIO-BULEGOA GAZTEDIAREN ZERBITZUAN

Udaleko Kultur Batzordeak antolatuta, ekainaren hasieratik martxan dago Gaztediarendako Informazio-Bulegoa.

Oraindik goiz bada ere zerbitzu honen balorazioa egiteko, lehen egunotako harrera kontutan izanik guztiz positiboa dela esan beharra dago. Lehen hiru aste hauetan 300 gazte baino gehiago pasa dira era guztietako informazio eske. Informazio-eskaera gehienak hauek izan dira: denboraldirako lanak, %20,23; atzerriko eta estatuko beste elkarte autonomikoetako mapa eta gidak, %15,8; kampamenduak eta lan-kanpamenduak, %15; bidaiak, %12,6; era guztiko ikastaroak, %11,9...

Baita ere zenbait karnet, lana, diru laguntzak, lehiaketak, oposaketak, bidaiatzeko bankuak... izan dira kontuslta-gai.

Aurreko bisitarien kantitateetan ez da sartu, zelako informazioa eskaintzen dugun edo-ta gure iragarkitegiak ezagutzera etorri den jente-multzoa. Amaitzeko azpimarragarria da herriko gazteen desinformazio edo ziatiba hau, gazteek, noiz edo noiz eurekin gogoratzea eskertzen dutelarik.

Marisa Cid.


informazioa gazteentzat 80'ko udara

GAZTEEN INFORMAZIORAKO UDAKO KANPAINA

EKAINEAN eta **UZTAILEAN** Untzaga Plazan bertan egongo gara, Udaletxeko arkupeetan

Telf. 11 34 57.

EUSKARAZKO LANETARAKO DIRULAGUNTZAK



Udaleko Euskara Batzordeak helburu nagusi bi lortzearren: Eibarren memoria historikoa bilduz jorratzea eta disziplina guztietan euskararen erabilpena bultzatzea, diru-laguntzak emango ditu. Beraz, adi ikasle-estudianteok aukera polita da eta zuentzat, ea aprobetxatzen duzuen.

Aurren esandako moduan Eibarren memoria historikoa batzea da, horretarako hiru belaunaldi edo generazio desberdinez osatuko lan taldea osatzen dihardugu, geure nagusiek, joan eta eurekin eroan orduko, dauzkaten memoria historiakoaren gogoramen eta jakituriak biltzeko. Arlo honetan honako lanak, bestelakoen artean, jorratu daitezke: lehengo ume-jolas eta kantuak, gaitzizenen mundua, lehengo ohitura eta usadioak, herriko efemerideak, Eibarko pertsonai popularrak historian zehar, Gerrateko Eibarko historia... Hizkera edo berbetaren arloan: toponimia garrantzitsuenaren mapa, hiztegi bereziak, bertoko esakerak. ... Horra hor filologia, historia, pedagogia... estudiatzen diharduzuenontzat aukera; alde batetik zuen jakituria zabaldu eta sakondu, ikasgairen bat gainditu lana aurkeztuz eta diru piska bat lortu.

Bestalde eta euskararen normalkuntza arlo guztietan bultzatu nahian Euskara Batzordeak betiko literatur sarietatik kanpo, euskara literatur mundura bakarrik ezin da mugatu eta, ingineritza, ekonomia, geografia, kirola, historia, soziologia, filosofia... arloko ikasgaiak eta tesinak gainditzeko euskararen erabilpena sustatu edo promozionatzeko diru-laguntza jarri ditu. Kasu honetan egingo den lanak Eibar herriarekin zerikusia izango du derrigorrez.

Memoria historikoaren arloan zein bestelakoetan egindako lanak argitaragabeak izango dira eta Abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira, gutxienez 25 orrialdekoak izango direlarik.

Azkenik, esan, diru-laguntzak 15.000 pztatik 50.000 artekoa izan daitezkeela epaimahaiak erabakiko duelarik saria, Udalak argitaratzeko aukera gordez. Dena dela eta edozein dela interesa 11 80 64 telefonora dei edo Udaleko euskara Zerbitzuan ematen da informazioa.

SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno, hori ala bada eta AYERBE LIBURUDENDAK oparituko dituen liburuak irabazi nahi badituzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara hilaren 15a baino lehen, zeure datuak eta telefonoa emanez!

EIBARKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
«...eta kitto!» Sariketa.

6. Aleko sariketaren erantzuna «Calbeton kaleko etxeen atzeko aldea, Eibarko Txikitora ematen duten etxeak»da. Oraingoan ere kale batzu egon dira. Dena den irabazlea Aitor Aranbarri, Bista Eder kalekoa, izan da. Zorionak eta jarraitu parte hartzen.



AYERBE LIBURUDENDA

EUSKARAZ

— Obabakoak (B.Atxaga)
— New York, New York (G. Garate)
— Saturno (A. Urretabizkaia)
— Abuztuaren 15eko bazkalondoa (J.A. Arrieta)

LIBURU SALDUENAK MAIATZA-EKAINEAN

— Versos Satanicos (R.Rushdie)
— La isla inaudita (E. Mendoza)
— Beltenebros (A. Muñoz)
— El negociador (F. Forysth)

IRAKURLEAREN TXOKOA

Eibarko AEK-ko ikasleak gara.
«... Eta KITTO!! aldizkaria kaleratzen denean irakurtzen dugu eta askotan irakurlearen txokoan artikulo eta irakurleen iritziak irakurri ditugulako, guk zuhaitzei buruz egindako lana zuek argitaratzea nahi dugu.

Esker beroez agurtzen zaituztegu

INGURU GIROKO PARTAIDE BATEKIN ALKARRIZKETA

4.U. Zenbat motatako zuhaitz dago Eibarren?
I.G. Zuhaizka eta zuhaitzen artean 145 gutxi gora behera.

4.U. Arruntenak zeintzuk dira?
I.G. Kalean gehienak, urki, ezki eta astigarrak dira. Astigarra 6-mota desberdinetakoa da.

4.U. Bitxienak zeintzuk dira?
I.G. Tuliperoa, hau bakarra da. Likidanba japonikoa, paul ubia, jupiter edo maitasunaren zuhaitza (izen horretaz ezagutua), liguzkia, rododendroa, redondron, hagina e.a.

4.U. Zer egin behar dugu zaintzeko?
I.G. Hasteko, behar duen tokia aukeratu, eguzkia, aizea eta lurra nolakoa den jakin eta behar duen ura bota, eta ez da esan beharrik, ez apurtzea. Entrebistatuaren iritziz, inausitako zuhaitza, gaizki landatutako zuhaitza da.

4.U. Nork zaintzen ditu zuhaitz hauek?
I.G. Momentuz udaletxeko inguru giroak, haritzak eta jardinetako loreak sartu berriak ditugu.

4.U. Desagertutakoak zergatik desagertu dira?
I.G. Garbi dago: gaur egun udaletxeak ez dauka terrenorik ezta ere indarrik zer egin behar duten eta zer ez esateko, beraz, bakoitzak egiten du bere terrenuaz nahi duena.
Nafarro aldean esaterako, hau egin behar dute: bi zuhaitz botatzen ba dituzte lau landaratu.

4.U. Lehen ugariak ziren?
I.G. Hospitaletik hasi eta Urko puntaraino gastinondoa zegoen. Galdaramino aldean dena pagadiak eta haritzak, Elgeta eta Arrateko bidean akazia eta urki ugari.

4.U. Bertakoak dira edo kanpotik ekarritakoak?
I.G. Batzuk kanpokoak eta beste batzuk bertokoak: kanpokoak direnak diputazioaren bidez lortzen ditugu, diputazioak Alemania, Frantzia eta beste nazio konbenio bat eginda dauka eta horrela mota ez berdinetako zuhaitzak trukatzen dituzte.

4.U. Zuhaitz bat bota egin behar dutenean posible da osorik atera eta lekuz aldatzea?
I.G. Bai, posible da, nahiz eta gareztia izan. Orain sindikalaren aurrean dauden bi zuhaitz handi horiek eskabadora bat erabiliz, sustraetatik aterako ditugu eta Elgeta landatu berriro.

AEK-ko 4. Urratsa

UDAL EUSKALTEGIAREN PROPAGANDA DELA ETA

Hauteskunde kanpaña pasa berri dugula bistan dago, alderdi politikoek ez bait dute utzi txirrikitorik ere euren propagandaz estali gabe. Bestelakook ez dugu lan makala izan iragarkiak non jarri asmatzen.

Eibarko Udal Euskaltegian (eta ez HABE euskaltegian) uztailerako, urtero legez, ikastaro trinkoak antolatu ditugu eta jendeari horren berri emateko propaganda kanpaña bati ekin diogu. Jarri, jarri ditugu kartelak eta iragarkiak, baina baita jendeak guk jarri ahala kendu ere. Agian normala da hori gertatzea, zeren jendea kokoteraino egon daiteke bazter guztietan honen eta horren propaganda ikustearekin. Baina ni gehien txokatzen nauena zera da: beti aurrenen desagertzen diren kartelak gureak izatea, eta hala badiot estraineko aldia ez delako diot.

Ez dut uste oso bidezko denik inork inori informatzeko edota informatua izateko eskubidea ukatzea, eta gutxiago euskara kontuetan ari bagara. Zeren gauza bat argi izan behar dugu: egiten diren ahalegin guztiak gutxi direla eibartarrok euskera ikastera erakartzeko, edo hobeto esanda, Eibar euskalduntzeko.

Itziar Garitagotia Baskaran
Eibarko Udal Euskaltegiko Zuzendaria



UDAKO KOLONIAK ETA IKASTAROAK: IKASI ETA BIZI

Oraingo inkesta fotografiko honetan udalekuetaz jardungo dugu, pixka bat nola funtzionatzen duten azalduko dugu, udaleku bezala gauza asko ulertu daitezke eta gure azterketa hau euskara ikasteko udaleku eta baita ere haurren udalekutaz arituko da.

Arantxa H.A.B.E.-koak esan digunez bi eskeintza daude: bata barnetigiak lirateke eta bestea euskaltegi bakoitzean ematen diren ikastaro trinkoak. Barnetegiak izan daitezke Eibartik kanpo edo Eibarren bertan Unibertsitatean, aste buruak nahi izanen gero libre izaten dira: goizetik klaseak izaten dira eta arratsaldean beste ekintza osagarri batzuk egoten dira. Orain dela denboratxo bat beste euskara ikasteko modu bat ere badago nahi duenarentzat, hain zuzen familia batetan, euskaldun familia noski. Euskal Gobernuak zati bat ordaintzen du eta beste zatia ikasleak, era honetan ikasleak euskaldun giroan bizitzeko aukera izango du, eta laboratorioko euskera baztertuko. A.E.K-ko **Txistok** bere barnetegietako esperientzia kontatu digu irakasle moduan eta **Arantxak** esan digun bezala esperientzia positiboa izan da, ez bakarrik euskara ikasteko baizik eta konbibentzia edo harreman batzuk sortzen direlako. Politenak harremanak izango lirateke, bai lagunekiko eta bai herriarekiko, normalean herri euskaldunak aukeratzen dira barnetigietarako. «Gero eta jende gehiago etortzen da barnetegietara, egia esan ikasteko modurik onena da», esan digu **Txistok**.

Eibarko Udaletxeak antolatzen dituen kolonietaz ere hitzegin dugu **Imarekin** eta berak azaldu digunetik konlusioa zera litzateke: Eibarren horrelako udalekuak antolatzea beharrezkoa da haurrentzat». Baina irakurri ezazue nola funtzionatzen duten eta zeuon esku gelditzen da erantzuna.

«Eibarko udaleku hauek pasa dan uztailean jarri ziren martxan. Batetik guraso eta irakasleen keja zegoen umeak eskolan euskara ikasten zuten arren gero, oporretan, galdu egiten zutela eta bestalde Eibarren gelditzen zirenen arazoa ere bazegoen, hau da: herrian piszina ireki eza eta alternatiba bakarra Deba izatea.

Orduan pentsatu zen udalekuak sortzea baina Eibarren bertan. Honek helburu bikoitz bat daukalarik: bata txangoak egitea eta eguna ondo pasatu ondoren etxera bueltatzea eta bestea txangoak eta beste gauza guztiak egiteaz gainera euskara sendotzea. Esan beharra dago jaoan zen urtean aurten baino arrakastatsuago gertatu zirela.

Udaleku hauek sortzeko eta mantentzeko beren laguntza eskertu behar zaie, **Guraso Elkarteei, Diputazioari** eta **Udalari**».

Beste eritzi bat ere aztertuko dugu udalekutaz ari dena, oraingo honetan **Jesus Mª Arrieta** Euskal Udalekuetako antolatzaileetariko baten eritzia dugu; **Jesus Mª-k** dionez: «Euskal Udalekuak umeek oporgiroa euskaraz bizitzeko sortu ziren, horrekin batera elkar bizitza eta herri desberdinetako haurren artean ezagupideak egitea legoke. Orain dela 25 urte sortu genituen ikusirik uda aldean ikastolako haurrek euskararen erabilpena asko galtzen zutela. Gerora ikastoletan ez zebiltzaten haur euskaldunak ere hartu ziren. Horrela ikastoletatik aparte Euskal Udalekuek beren nortasun propioa hartu zuten. Orain 1.300-1.400 haur inguru izaten ditugu 4 etxetan banatuta».

ZER IRUDITZEN ZAIZKIZU UDALEKUAK EDO KOLONIAK? ZERGATIK?



TXEMA CORNAGO, 39 urte, Uni-ko zuzendaria
Oso interesgarria, planteiamendua guztientzako baliozkoa da. Nik ere bidaltzen ditut umeak kolonietara eta bertan izaten duten harremana ezin hobea iruditzen zait, gainera ekonomikoki ere oso ondo daude poltsikoarentzat. Kolonien plana potentziatu egin behar litzateke ahal den gehiena.



MARIA, 9 urte
Ondo iruditzen zaizkit, lagunak eitxen diraz ta. —Jolasean piszinetan ta horrelakoetan oso ondo ibiltzen gara.



MIGEL, 10 urte
Oso ondo pasatzen dela, ta oso politak dirala. Begiraleekin ere oso ondo konpontzen gara, eta gainera egun osoa euskaraz.



JUANA EGIGUREN, 59 urte, etxeko andrea
Neri ondo iruditzen jata, zenbat eta gehixao egon umiak pozixao egongo dia, pentsatzen dot nik. Nik ez dakat umerik baiña gustatzen jata.



ISIDRO DEL PARDO, 67 urte, jubilatua
Nik uste dut oso ondo dagoela, zorionez edo zoritxarrez nik ez ditut inoiz bidali ez dudalako semerik.



MILAGROS OSINALDE, 45 urte, etxeko andrea
Onak diala, garrantzia daukate. Beste lagunekin harreman asko eukitzen delako eta beste herrietako ume batzukin iblitzen dialako; neriak beti juan izan dia haziak izan dianian.



MANU, 25 urte, monitorea
Oso beharrekoak dirala, alde batetik euskararen erabilera indartzeko eta bestalde uztailean hemen gelditzen diren haurrei, kanpora joaten, ez diren haurrei beste aukera bat emateko.

AGENDA

Uztaila

• KIROL ARLÓA

C. DEPORTIBOko MENDIZALE TALDEAk antolaturik IBILALDIAK
2an: Eibarko itzulia
8an: Lizarrusti-Otzaurte Mendatea

• EGUZKIk Antolatuta
16an: Igandea, BIZIKLETAN MARTXA DEBARAINO. «EGO ERREKA GARBIAGO BATEN ALDE» Lemapean.

•UDAKO KIROL EKINTZAK: POLIKIROLDEGIAN
12-tik-27ra, ordu desberdinean honako ikastaro hauek antolatu dira: TENISA — ESPELEOLOJIA — UR-AZPIKO EKINTZAK — WINDSURFA — JUDO — KARATE.
Baita ere eta Ekainaren 28tik Uztailaren 28ra; GIM-JAZZ — RUGBYA — PELOTA — SASKI BALOIA, e.a., e.a.,
INFORAMAZIOA: EIBARKO POLIKIROLDEGIAN:

• «OPORRAK AFARIKETAN»

EUSKARA BATZORDEAK Antolaturik eta uztaileko 2 hamabostaldi tan zatiturik OHOan ikasten dauden umeentzat ekintza ugari izango dira. Lehiaketak, Kirolak, txangoak, Bisita kulturalak, Jaialdiak, e.a., e.a.

• AMAÑAKO JAIAK

7an: Txapligoak, Kalejira KULISKA Txarangarekin/ Nagusiei Omenaldia/ Berbena MINXORIAK Taldearekin/ Sokamuturra.
8an: Kirol probak gazteentzat/ Buruhandiak/ HERRI KIROLAK: «Ahari topeka» «Oilar erakusketa», «Basurde harrapaketa». eta 1. aldiz SALDI DANTZARIA AIZKOLARIAK: MUGERZA — AYERBEren kontra eta gero JESUS ATXA II, Kontra BERBENA NERVION Taldearekin./ Suak/ Bolo-Jokoak/ Sokamuturra/ IÑAKI PERURENA.
9an: Diana / BERTSOLARIAK: AROZENA ETA NARBAIZA/ Landare lehiaketa/ Kalejira/ Haurrentzako jolasak/ Txokolatada/ Giñola/ SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK/ Sardina-Juana/ CAMP DANTZALDIA

• EUSKARA IKASTAROAK

UDAL EUSKALTEGIAK: Ekainaren 27-tik— Uztailaren 21ra euskarazko ikastaro trinkoak. Informazioa: 70 09 12 Telefonoan

AEKk antolaturik KANPO IKASTAROAK (Abaltzisketa, Otxandio...)
Informazioa: 11 13 79 Telefonoan

• UDAL KULTURA SAILA

1-2- eta 3an: San Pedro Jaiak. URKUZUAn
5tik-16ra: ZERAMIKA ESKOLAren ERAKUSKETA
11-12 eta 13an: «Bideo-Arte» Emanaldiak. Udaletxeko Batzar Aretoan
14an: XARXA TEATRE. Kale Antzerkia. «El Dulzainero de Tales» obrarekin
16an: Musika Bandaren Kontzertua. Eguerdian
22an: POP KONTZERTUA: «ENFERMOS», «PRIMERA Y ULTIMA VEZ», «Y A SANTO DE QUE» Taldeak. Untzagan. Gaueko 10'30tatik aurrera.

• ARGAZKILARITZA

DEPORTIBOKO ARGAZKI Taldeak antolatuta Uztailaren 8an, Larunbata, LAN KIDE AURREZKI KUTXAren Aretoan XABI OTEROk argitaratu duen ARGAZKI LIBURUAREN AURKEZPENA. GAIA: SAHARAUIAK

• GOIMENDIKO JAIXAK (Azurtza)

24ean: 21etan: Berakazopak/ Goizalderarte Erromerixia; «Tomas Zubizarreta» «Zendoia» eta «Egañazpi»
25ean: 11etan: Meza/**12.30etan:** Bertsolariak, AGIRRE ETA JOSE LIZASO **13,30etan:** «KEZKA» dantza-taldea. Ondoren mendi erromerixia./ 17,30etan Dantza-Txapelketa 14 urtez behera)/ 18,15: Bertsolariak eta Bolajoku txapelketa/ 19etatik aurrera erromerixia.

NORK ZER

• ***Koordinatzailea:***
Fernando Muniozguren

• ***Erredakzio-taldea***
Ana Aizpurua
Idoia Arrillaga
Mireia Ugarteburu
Idoia Irazola
Fernando Muniozguren

• ***Argazkilariak***
Mikel Gorosabel
José Valderrey

• ***Maketazioa***
José Valderrey

• ***Komikia***
Ander Gisasola

• ***Marrazkiak***
Leire Astigarraga

• ***Inprimaketa***
Antza